

# **Teknologia berrien erabilera eta eragina etorkinen artean aztertzeko Biltzarra**

Hamabost herrialdetako hogeita hamar bat aditu elkartu ziren azaroaren 10ean, 11n eta 12an Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei (IKTei) eta Migrazioari buruzko Nazioarteko Biltzarrean eta IMISCOE Bikaintasuneko Europar Sareko doktoregaien Biltzarrean. Helburua hauxe izan zen: teknologia berrien erabilera eta eragina zein den aztertzea etorkinen artean. Biltzarrean ospe handiko nazioarteko adituek egindako lanik berritzaileenak plazaratu ziren populazio sakabanatuen inguruan eta aztertu zen zein elkarreragin zuten populazio horiek informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriekin.